

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua ispilu moduko bat da, probatu nahi den arropa duen pertsonaren irudia proiektatzen duena. Moda dendetara zuzenduta dago. Dendan, fisikoan, jantzi bakoitzaren tailaje guztiko unitate bat egongo da, eta bezeroek hura ikusteko bakarrik hartu ahal izango dute.

Funtzionamenduari dagokionez, pantailan proiektatu nahi denaren barra-kodea eskaneatzeko aplikazio bat egongo da. Dena eskaneatu ondoren, eskanerlean hutsune bat egongo da mugikorra jartzeko, proiektatuko dena gorde dadin. Arropa guztia eskanerlean probatu ondoren, erosiko duzuna aukeratu beharko duzu, zure izena erregistratuz. Kamarak zure gorputza eskaneatuko du eta zure gorputzera gehien egokitzen den neurria gomendatuko dizu. Egin ondoren, kutxara bidaliko da, eta bertan, zure izena esanez, erosi nahi dituzun arropak aterako dira. Kutxazainak zure arropak eman eta kobratuko dizkizu.

Hauek dira proiektu honen abantailak:

- Bezeroei gustatzen zaien arroparekin ikusteko aukera erraztuko du, probalekuetara sartu beharrik izan gabe probatu ahal izateko.
- Salmentek gora egingo lukete bezeroak arropak ez probatzean izango duen erraztasunagatik eta dendei mesede egingo liekete.
- Higienikoagoa da covid-agatik.
- Jantziak ez dira ez hondatzen ez zikintzen, bezeroek ez dituztelako probatzen.
- Arduratsua den bezeroak ere etxean arropa ez garbitzeko aukera izango du.
- Enplegua ez da jaitsiko, probalekuetan lan egiten zuten langileek eskanerretan lan egingo baitute.
- Arropa barietatea handituko da eta leku gehiago egongo da, neurri bakoitzeko unitate bat egongo baita.

Proiektu hau moda enpresa eta denden arazo nagusiak konpontzeko sortu da. Izan daitezke probalekuetan sortzen diren ilara izugarriak eta, batez ere, jantzien higiena mantentzea Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz.

Bestalde, gure bezeroen bizi-erata erraztu nahi genuke, beste jantzi mota batzuk eskainiz modu berritzaileagoan ikusteko.

Proiektu honen gauzarik garrantzitsuena eskanerra izango da, haren bidez bezeroaren irudia islatuko baita, dagozkion neurriekin.



→ Eskinerra estilo honetakoa izango litzateke, ez baitu okupatzen eta dendako hormetan jar baitaiteke.



→Eskanerrarekin batera makina hori egongo da, QR kode-irakurgailu bat izango duena, eta aplikazioan bezero bakoitzaren informazioa gordeko da.



→Mugikorra aplikatuz jantziak horrela eskaneatuko dira.